

## Nazioarteko eragileak, lekuko deserosoak

**ETA-K** isilik jarraitu izan balu, bere isiltasuna susmagarria zatekeela adierazi da zenbait hedabidetan. Hitz egiten badu, aldiz, "publizitatea da" edo "bere bizitzako une gaitzanean nabarmendu beharra". Edo hitz egitekotan, diote hainbatek "bere desagertzea iragartzeko" beharko luke. Edo esaten duena baino "esaten ez duena da garrantzitsuen". Era denetako adierazpenetarako ematen du ETAREN azken agiriak.

Batek daki zer dagoen ETAKo egungo zuzendaritzaren buruan, batez ere Sortu-ren agerpenaz eta berau aurkezteko moduz. Batek daki zein den bere barne harremanen indarra ezker abertzalean sortu den egoera berriaz.

Eta batek nahiko luke bere desagertzea aspaldi eman izan balitz, edo igandean bertan iragarri izan balu. Baina hala izan ezean, batek ondo baloratzen du azken agiriaren edukia, hainbat arrazoiengatik: bat, urtarriean iragarritako su-etena berretsi du (Espainiako bi ministro poztu dira horregatik); bi, su-etena modu formal batez egiaztatatu ezin bada, izan bedi "egiazta-tze informal" bidez (malgutasun



ARGAZKI PRESS / MONIKA DEL VALLE

adierazle); hiru, euskal gizartearen "aurrerapausoak" antzematen ditu (gizarteko gainerakook bezala); lau, urtarrieko agiriaren bukaeran, "egiazko egoera demokratikoa lortu arte", ETAK borrokan jarraituko zuela adierazi izana "prozesu demokratikoa"-rekiko zaintza gisa hartu zen eta asmo hori arbuia zuten askok, orain ez da halakoren zantzurik.

Oso posible da maiatzaren 22aren aurretik ETAK berriz zerbaitek adieraztea, hauteskunde garrantzitsu askoren atarian egin ohi duen legez. Hala balitz, ona litzateke argi adieraztea bere etorkizuna Gernikako Ituneko edukietan dagoela.

**ESPAINIAKO** Auzitegi Gorenaren agertutako banaketak (zazpi legezatzearen alde eta bederatzia aurka), Auzitegi Konstituzionala Sortu legezatzearen alde ager litekeen susmoa barreiatu du. Eta oso gaitza izango bada ere, ebazpena apirilaren 18a baino lehen eman dezakeela. Auziaren izaera eta tamaina kontuan izanda, hori litzateke logikoena eskubideen auzitegi garantista batean. Baina, Sorturen estatutuak legezko-

ak direla onartu ondoren, logikoa goa zen Auzitegi Gorenak bere epaia sinesgarritasunean baino frogetan oinarritzea, eta ez zuen egin.

Auzitegi Nazionalak iaz Egunkaria auziko auzipetuak absolbatu zituen akusazioak frogetan baino "perituen" -Segurtasun Indarren- ustean oinarritzen zirelako. Berdin gertatu da aurtien Udalbiltza auziarekin. Zentzu juridikotik aztertuta, beraz, horregatik da hain ulergaitza orain Auzitegi Gorenak beste bi auzi horietako akusazioen jokamolde bertsua erabiltzea; eta horregatik da hain ulergarria kontrako zazpi boto izatea.



Ekain berri



**Euskal  
Kulturaren  
sustraiak**

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

**ONLINE**

[www.ekainberri.com](http://www.ekainberri.com)

943 86 88 11